

2018-06-26ko OHIKO UDALBATZA

Irurako udaletxean, 2018ko ekainaren 26an, arratsaldeko 19:30ean, lehen deialdia egin ondoren, Udalbatza bildu da ohiko osoko bilkura egiteko. Mahaiburua Ana Jesús Leunda Gurruchaga izan da, udaleko alkate-lehendakaria, eta zinegotzi hauek agertu dira gaiak aztertzeko:

-Azaldu diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jose Ramon Epelde Irizar, Maria Cristina Santos San Sebastian eta Marta Castrillo Iturralde.

-Azaldu ez diren EAJ/PNV udal-taldeko zinegotziak: Jesus Maria Alonso Insausti.

-Azaldu diren EH BILDU udal-taldeko zinegotziak: Jose Ignacio Imaz Bengoechea, Ainhoa Ugalde Gorostiaga eta Olaia Nieto Legarra.

-Azaldu ez diren BILDU udal-taldeko zinegotziak: Mikel Gotzon Iturbe Saizar.

Miguel Antonio Arrizabalaga Brusin Udaleko idazkari kontu-hartzaileak egin ditu idazkari-lanak.

Alkateak hasitzat jo du saio publikoa; segituan, eta alkatearen baimenarekin, idazkariak jakinarazi du bilera egin daitekeela, bertara agertu baita gutxieneko partaide kopurua, Toki Erregimeneko Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak eta azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuak, Toki Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Araudi Juridikoaren Erregelamendua onartzen duenak, agindutakoa.

LEHENENGO GAIA

AURREKO AKTA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO (2018-04-24).

Aurkeztu da 2018ko apirilaren 24ko aktaren zirriborroa.

Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi du akats bat dagoela laugarren puntuan (Trafiko Ordenantzaren 3. aldaketa): hainbat datu eman behar dio udal-zerbitzuari, kanpoko senideak etortzen direnean plazako pibotea igotzeko.

Beste aldetik, Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) berriz eskatu dio idazkariari aktak lehenago aurkeztea, gero oso zaila delako gogoratzea zer esan den...

Gainera, idazkariak adierazi du bilera honen grabazioan izen propioak agertzen direla, eta udalaren web-orrian argitaratzeko, aipamen horiek kendu

egin behar direla; bestela, ezin da argitaratu, pertsonen datuak babesteko araudiaren arabera.

Ondoren, akta aho batez onartu da, aipatu den aldaketarekin.

BIGARREN GAIA

ALKATETZAREN DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2018/81 DEKRETUTIK 2018/103 DEKRETURA BITARTEAN.

Alkateak 2018/81 dekretutik 2018/103 dekretura bitartekoen berri eman dio Udalbatzari.

Eta udalbatza jakinaren gainean geratu da.

HIRUGARREN GAIA

ETXEZ ETXEKO LAGUNTZA-ZERBITZUA KONTRATUAREN ESLEIPENA ERABAKITZEA, HALA BADAGOKIO.

2018ko otsailaren 27an, Irurako Udaleko Udalbatzak onartu zuen etxez etxeoko laguntza-zerbitzua kontratatzea eta horri dagozkion Baldintza Administratibo Berezien eta Baldintza Teknikoen Agiriak ere onartu zituen.

Kontratatzeko espedientea hasita, 2018ko martxoaren 6an Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen, proposamenak aurkezteko deialdia: Etxez Etxeko laguntza zerbitzua.

Proposamenak aurkezteko epea 2018ko martxoaren 26an amaitu zen, eta apirilaren 17an, eskaintzak (A kartazala) ireki ziren, ekitaldi publiko batean.

Bi enpresa aurkeztu ziren:

-Ilarki Etxez Etxeko Elkargoa.

-Arreta Zerbitzuak S.L.

2018ko apirilaren 20an ireki ziren C kartazalak (proposamen teknikoa), eta udal-zerbitzuen txostenaren arabera, bi enpresek gainditu dute gutxieneko puntuazioa: Baldintza Agirien 13. klausularen arabera, 25 puntu gutxienez lortu behar dituzte proposamenek, fase hori gainditzeko .

Txostenaren arabera, emaitzak honela izan dira:

-Ilarki Elkargoa: 47 puntu.

-Arreta Zerbitzuak: 48 puntu.

2018ko maiatzaren 30ean egindako bileran, kontratazio-mahaiko kideek aho batez onartu zituzten txostenaren emaitzak.

Ondoren, 2018-05-16an proposamen ekonomikoak ireki ziren, eta emaitzak honela izan dira:

| Enpresa | Laneguna | BEZ | Guztira | Jaiegunak | BEZ | Guztira |
|---------|----------|-------|---------|-----------|-------|---------|
| ILARKI | 19,44 € | | 19,44€ | 22,94 | | 22,94€ |
| ARRETA | 19,75 € | 0,79€ | 20,54€ | 24,60€ | 0,98€ | 25,58€ |

Orain, idazkari-kontu-hartzailearen txostenaren arabera, prezioaren puntuazioa honakoa da:

| Enpresa | Puntuazioa |
|---------|------------|
| -ILARKI | 51 |
| -ARRETA | 48,22 |

Ondorioz, puntuazioaren guztizkoa honela geratuko da:

| ENPRESA | M. TEKNIKOA | PREZIOA | GUZTIRA |
|---------|-------------|---------|---------|
| -ILARKI | 47 | 51 | 98 |
| -ARRETA | 48 | 48,22 | 96,22 |

Ondoren, proposamenen klasifikazioa honela geratuko da:

1.- ILARKI ETXEZ ETXEKO ELKARGOA.

2.- ARRETA ZERBITZUAK S.L.

Ondorioz, kontratazio-mahaiak proposatu dio kontratazio-organoari esleipena Ilargi Elkargoari ematea.

Hori dela eta, eskatu zaio enpresari dagozkion agiriak aurkeztea Administratibo Berezien Agiriko 17. klausulak xedatzen duenaren arabera.

Agiriak aurkeztuta, udal-zerbitzuen txostenak hau ohartarazi du:

1.- Nortasun juridikoa egiaztatzeko dokumentuak aurkeztu dituela.

2.- Zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak egunean dituela adierazteko ziurtagiriak.

3.- Kaudimen ekonomikoa, finantzarioa, teknikoa eta profesionala nahikoa daukala.

4.- Ziurtatzen du administrazioekin kontratatzeko beste baldintzak betetzen dituela, erantzukizunpeko adierazpenaren bidez.

5.- Behin betiko bermea aurkeztu du, 10.369 eurokoa.

Hala ere, agiriaren 17.2 klausularen arabera, esleipena organo eskudunari dagokio, Irurako Udaleko Udaltzari, alegia.

Hori dela eta, Udaltzak, aho batez, hau erabaki du:

ERABAKIA

1º.- Etxez Etxeko Laguntza Zerbitzuaren kontratazioa Ilarki Etxez Etxeko Elkargoari esleitzea.

2º.- Esleipendunak administrazio-dokumentu batean jaso beharko du kontratua. Kontratua hasteko eguna 2018ko uztailaren 1a izango da.

3º.- Kontratuaren xede den jardueran arituko diren langileei aplikatuko zaizkien Hitzarmen Kolektiboa hauek izango dira: 2017rako enpresaren hitzarmena eta Mendeko pertsonen arreta emateko eta autonomia pertsonalaren sustapena garatzeko zerbitzuen estatuko esparru-hitzarmena.

4º.- Kontratuaren zuzendaria udaleko gizarte-langilea izango da.

5º.- Enpresa kontratistak koordinatzaile teknikoa izendatu beharko du, eta aipatu den zuzendariak onartu.

6º.- Langileen hizkuntza-gaitasuna ziurtatuko da edo egiaztatuko da, Udaleko hizkuntza-zerbitzuen bidez.

7º.- Datu pertsonalen tratamenduari dagokionez, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016ko apirilaren 27ko 2016/679 Datuak Babesteko Erregelamendu Orokorra bete beharko du. Enpresaren betebeharra izango da tratamendua burutzea, eta datuak babesteko ordezkaria izendatu beharko du.

8º.- Administrazio Baldintzen Agiriaren III. Eranskinean aipatzen diren langileak subrogatu beharko ditu, aurrekoek zituzten laneko eta Gizarte Segurantzako eskubide eta betebeharrak berdinekin, eta hori ziurtatu behar dio Udalari.

9º.- Irurako Udaleko Ana Jesús Leunda Gurruchaga Alkateari baimena ematea Udalaren izenean kontratua sinatzeko eta helburua betetzeko beharrezkoa den beste edozein izapide egiteko.

LAUGARREN GAIA

EUSKAL FONDOA 2018KO DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Urtero bezala eta Euskal Fondoaren kide izanik, Udalbatzak, aho batez, hau onartu du:

ERABAKIA

2018ko diru-laguntza hauek onartzea eta zuzenean ordaintzea:

- Sahara: garraio-azpiegiturak laguntzea, ur-hornikuntzarako zisterna-kamioien mantentze-lanak eta berriztatzea: 1.500 euro.
- Nikaragua: edateko uraren eta saneamenduaren sistemak hobetzea Las Azucenas komunitatean: 1.000 euro.

BOSGARREN GAIA
IRAKASKUNTZAKO ERAKUNDEENTZAKO DIRU-LAGUNTZAK
ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Kultura, Euskara, Gazteria eta Partaidetzari buruzko Informazio Batzordean, 2018ko ekainaren 19an eginiko bileran, irakaskuntzako erakundeentzako 2018ko diru-laguntzak onartzea proposatu zen.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA:

Lehenengoa.- Erakunde hauentzako diru-laguntzak onartzea 2018rako:

-Ibilaldia: 160 €.

-Araba Euskaraz : 160 €.

-Kilometroak : 160 €.

-Nafarroa Oinez: 260 €.

-Herri Urrats: 260 €.

Bigarrena.- Onartutako diru-laguntzak zuzenean ordaintzea, 2018ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.0000.481.335.00.00.2018.

SEIGARREN GAIA

TOLOSALDEAKO KOMUNIKAZIO TALDEARENTZAKO (ATARI) DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Udal honek euskararen erabilera soziala suspertu nahi du. Ildo horretatik, Tolosaldeko Komunikazio Taldea dugu Tolosaldeako euskarazko komunikabidea: Atari egunkari eta astekaria , Atari irratia eta www.ataria.eus guneak osatzen duten proiektu komunikatibo multimediarren jabe eta ekoizpen arduraduna .

Gainera, Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 legearen 7.2 artikulua arabera, udalen berezko eskumenak dira, eskumen horretatik eratorritako ahalmen eta funtzioekin batera, haien lurralde-eremuan euskararen ezagutza sustatzea eta erabilera dinamizatzea (...) edo beste pertsona edo erakunde batzuk euskara sustatzeko eta dinamizatzeke burutzen dituzte jardueren finantzaketan laguntzea.

Bestalde, Irurako Udalaren 2018ko aurrekontuan kreditua berezia dago Ataria-rentzako partida honetan: 1.0000.481.335.00.00.2018.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez hau onartu du:

ERABAKIA

LEHENA:- Onartzea hitzarmen bidez 5.469 euroko diru-laguntza hori ematea, aipatu den helburuarekin.

BIGARRENA:- Irurako Udaleko alkate den Ana Jesús Leunda Gurruchaga andreaki baimena ematea, hitzarmen hori Udalaren izenean sinatzeko eta helburua betetzeko beharrezkoa den beste edozein izapide egiteko.

ZAZPIGARREN GAIA

GALTZAUNDI EUSKARA TALDEARENTZAKO DIRU-LAGUNTZA ONARTZEA, HALA BADAGOKIO.

Eusalgintzako erakunde batzuek diru-laguntza eskatu diote Udalari. Gaia aztertu ondoren, Kultura, Euskara, Gazteria eta Partaidetzari buruzko Informazio Batzordeak, 2018ko ekainaren 19an eginiko bileran, aldeko proposamena egitea erabaki du.

Halaber, diru-laguntza hau zuzeneko emakida da, eta Udalaren 2018ko aurrekontu orokorrean izenez esleituta dago.

Hori ikusita, Udalbatzak aho batez erabaki du honakoa:

ERABAKIA:

- 1.- Galtzaundi Euskara Taldeari 1.000 euroko diru-laguntza ematea.
- 2.- Onartutako diru-laguntzak zuzenean ordaintzea, 2018ko Aurrekontuaren partida honetatik: 1.0000.481.335.00.00.2018.

ZORTZIGARREN GAIA

IDAZKARI KONTU-HARTZAILEAREN TXOSTENAK.

Ez dago txostenik.

BEDERATZIGARREN GAIA

GALDE-ERREGUAK.- Gai hauek jorratu dira:

- a) Alkateak adierazi du ekainaren 28an Gay, Lesbiana, Bisexual, Transexual eta Intersexual Harrotasunaren Eguna izanik eta euren eskubideak aldarrikatzeko, udaletxeko balkoian bere bandera zintzilikatuko dela.
- b) Alkateak adierazi du uztailaren azken asteartea San Ignazio eguna denez, hurrengo udalbatza uztailaren 24an egingo dela.

- c) Alkateak adierazi du azken Udalbatzako galderari erantzunez, bi familiako bi etxebizitza Larriturri auzoan lizentziari dagokionez, maiatzaren 4ko 68/2018 Alkatearen Dekretuaren bidez espedientea abiarazi zela, amaitzeko epeak gainditu zituelako, eta orain, maiatzaren 28ko 88/2018 Alkatearen Dekretuaren bidez, lizentzia luzatu dela 2018ko abenduaren 31ra arte.
- d) Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi du, 49/2018 Alkatearen Dekretuaren bidez, zigor-espedientea ireki zaiola emakume bati, zaborrak gaizki husteagatik, eta argitzea eskatu ditu.
- Alkateak erantzun dio emakumeak bordetan daukala txabola eta udal zerbitzuek nabaritu dutela kalean uzten duela zaborra.
- Olaia Nietok (EH Bildu) erantzun dio batzuk gaizki uzten dutela zaborra, eta beste batzuek, berriz zuzenean kalean. Ibilbide hau eta inguru hori zaborrez beteta dago.
- e) Olaia Nietok (EH Bildu) esan du, Alkate Dekretu bidez, Enara tabernari kalean terraza jartzeko baimena eman zaiola, eta galdetu du beste tabernak baimena eskatu duten ala ez.
- Alkateak erantzun dio beste tabernei ere baimena eskatzeko idazkia eman zaiela, eta taberna horrek bakarrik eskatu duela baimena.
- f) Olaia Nietok (EH Bildu) adierazi dio idazkariari Alkatearen Dekretu batzuetan euskarazko testuan oraindik Ainhoa Ugalde izena agertzen dela alkate bezala.
- Idazkariak erantzun dio zuzenduko duela.
- g) Ainhoa Ugaldek (EH Bildu) alkateari galdetu dio plazako antzinako zahar-etxearen lokalaren kontzesioari buruz: norbait agertu den eta noiz amaitzen den epea.
- Alkateak erantzun dio epea uztailaren 25ean amaituko dela. Tolosaldea Garatzen elkartearen zabaldu dela iragarkia, eta orain ez dela garairik onena eta itxaron egin behar dela ikusteko proposamenik agertzen diren.
- h) Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) esan du udaleko gobernuak lehen lauhilekoko zaborren datuak irakurri zituela, eta gaikako bilketa bederatzi puntu jaitsi dela. Galdetu du nola baloratzen den.
- Alkateak erantzun dio egia dela jaitsi dela, eta ondo zaintzen ari diren herritarrak zoriondu nahi dituela, ahalegina egiten ari direlako. Lasaikerian erori direnei berriz kontzientziatu beharko zaie. Herri gehienetan atez atekoa kendu eta edukiontzia jarri dituzte, eta herritarren bizi-kalitatea handitu da. Denok ados daude birziklatu behar dela, denon lana dela, eta hori zabaldu behar dela, kanpainak, prentsaurrekoak eta abar eginez. Mankomunitatearen harremanetan jarriko dira, behin jasotzeko zerbitzua esleitu ondoren, denbora gehiago baitute gaia sakonago lantzeko. Alabaina, egia da ere Irura eta Tolosako herriak direla gehien birziklatzen dutenak.
- Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun dio harrigarria iruditzen zaiola bizi-kalitatea igo dela esatea, bederatzi puntu jaitsi baita birziklatze-tasa. Sistema aldatu zutenean esan zen, gauzak ondo ez bazihozten, neurri

zuzentzaileak hartuko zirela, eta orain, emaitzak ikusita, inpropioak gora doaz. Galdetu du zer esaten duten neurri zuzentzaileei buruz.

Alkateak erantzun dio Mankomunitatearekin harremanetan jarriko direla eta aztertuko duten zer egiten dezakegun denon artean.

Jose Ignazio Imazek (EH Bildu) erantzun dio hitza ez dela bete, eta datuak oso txarrak direla eta oso kezagarriak. Jakin nahi dute gai horri buruz zer esateko daukaten.

Alkateak errepikatu dio aurretiaz esandakoa: ondo egiten duten herritarrak zoriontzea, eta gaizki egiten ari direnak, berriz, kontzientziatzea.

OHARRA: eztabaida osoa jasota dago "www.irura.eus" helbidean.

Aztartzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak 19:50ean eman du amaitutzat bilera. Bertan esandako guztia aktan jaso dut, eta dena EGIATZATZEN dut, idazkari gisa.

ALKATEA

IDAZKARIA